



## ELKARBIZITZA ARAUDIA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

- LHko ikasleen elkarbizitza arautzen du eta hezkuntza komunitate osoak ezagutu beharrekoa da, guztion arteko elkarbizitza errazteko tresna baita.
- Guztion ardura da ikastolako giroa zaintzea eta elkarbizitza bultzatzea.
- Jokabide desegokiak, bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak hartzen ditu bere barne.
- Gure ikastolan jokabide desegokiaren aurrean proposatzen ditugun neurri hezitzaileak hausnarketa, elkarrizketa, adiskidetzea eta kaltea erreparatzea dute lehentasuna.
- Neurri zuzentzaileak izandako jokabide desegokiaren neurrikoak izango dira.

### 1- ARINAK:

| JOKABIDE EGOKIAK                                                                                              | JOKABIDE DESEGOKIAK                                                                                    | NEURRI ZUZENTZAILEAK                                                                                                                                                                                                                                                       |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Ikastolako instalakuntzak, ekipamenduak eta materialak modu egokian eta baimenarekin erabiliko ditugu.</b> | Ikastolako instalakuntzak, ekipamenduak eta materialak modu desegokian eta baimenik gabe erabili ditu. | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hausnarketa bidez, ondorioak aztertu eta kalteak zehaztu.</li> <li>- Aukera dagoen kasuetan, jokabide desegokiaren konponketa.</li> <li>- Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.</li> </ul> |
| <b>Beste ikaskideen materialak modu egokian eta baimenarekin erabiliko ditugu.</b>                            | Beste ikaskideen materiala modu desegokian eta baimenik gabe erabili ditu                              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.</li> </ul>                                                                                                                                         |



|                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|--------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aukera dagoen kasuetan, jokabide desegokiaren konponketa.</li> <li>- Egindakoaren hausnarketa, adinera egokituta.</li> </ul>                                                                                                                       |
| <b>Errespetuzko jarrerak izango ditugu guztiekiko, hezitzailekiko nahiz ikaskideekiko.</b> | <p>Hezitzaileekiko edo ikaskideekiko errespetu faltako jarrera izan du, hitzezkoa edo hitzik gabekoa, fisikoa edo psikologikoa.</p> <p>Ikastolako langileei gezurra edo informazio faltsua ematea, betiere horrek inori kalterik eragiten ez badio.</p> <p>Agindutakoa ez betetzea ingurukoen jarduna oztopatuz.</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egindakoaren hausnarketa idatzia egin eta konpromisu orria bete.</li> <li>- Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.</li> <li>-Jokabide eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.</li> </ul> |
| <b>Ikastola eremuak ezagutu eta errespetatzea.</b>                                         | <p>Ikastolako eremutik baimenik gabe ateratzea.</p> <p>Baimenik ez dutenei ikastolan sartzeko aukera erraztea.</p>                                                                                                                                                                                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>-Gertatutakoaren azalpenak eman eta konpromisoak idatziz jasotzea.</li> </ul>                                                                                                                                                                        |
| <b>Ikastolara huts egiterik gabe etortzea eta puntual etortzea.</b>                        | <p>Justifikatu gabeko hutsegiteak eta puntualtasun falta etengabeak egin ditu.</p>                                                                                                                                                                                                                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>-Gertatutakoaren azalpenak eman eta konpromisoak hartzea familiarekin.</li> <li>-Egindakoaren hausnarketa idatzia.</li> </ul>                                                                                                                        |



## 2- LARRIAK:

| BIZIKIDETZA                                                                                | BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | NEURRI ZUZENTZAILEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|--------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Beste ikaskideen materialak modu egokian eta baimenarekin erabiliko ditugu.</b>         | Berea ez dena bereganatzea edo lapurtzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lapurtutakoa dagokionari itzultzea.</li> <li>- Hausnarketa orria eta konpromiso orria bete eta gurasoen sinadurarekin itzuli.</li> <li>- Konpromiso orria bete.</li> <li>- Konpromiso orrian betetakoa, hitzez kaltetuari adierazi.</li> </ul>                                          |
| <b>Errespetuzko jarrerak izango ditugu guztiekiko, hezitzailekiko nahiz ikaskideekiko.</b> | <p>Hezkuntza komunitateko kideen aurkako irainak, mespretxuak, desafioak edo eta mehatxuak egitea.</p> <p>Intimitaterako eta irudi propiorako eskubidea ez betetzea grabazioak edo bestelako baliabideak erabiliz.</p> <p>Norbait bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, indarkeriarik erabili gabe.</p> <p>Pertsona bat bere arraza,adina, sexua, orientazio sexuala, gaitasun fisiko, gaitasun</p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hausnarketa orria eta konpromiso orria bete eta gurasoen sinadurarekin itzuli.</li> <li>- Konpromiso orria bete.</li> <li>- Konpromiso orrian betetakoa, hitzez kaltetuari adierazi.</li> <li>- Lan hezigarriak edo eragindako kalte materiala konpontzeko zereginak egitea.</li> </ul> |



|                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                                                                                               | <p>psikiko, erlijio, kultura, sinesmen, ideologia edo beste edozein arrazoiengatik diskriminatzea suposatzen duen edozein ekintza burutzea.</p> <p>Ikastolako langileei gezurra edo informazio faltsua ematea, horrek beste kide batzuei kalte egiten badie.</p> |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <b>Ikastolako instalakuntzak, ekipamenduak eta materialak modu egokian eta baimenarekin erabiliko ditugu.</b> | <p>Nahita kalteak eragitea Ikastolako altzari, material edo dokumentuei.</p> <p>Irakasleen dokumentuetara baimenik gabe sartzea.</p>                                                                                                                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hausnarketa orria eta konpromiso orria bete eta gurasoen sinadurarekin itzuli.</li> <li>- Konpromiso orria bete.</li> <li>- Konpromiso orrian betetakoa, hitzez kaltetuari adierazi.</li> <li>- Lan hezigarriak edo eragindako kalte materiala konpontzeko zereginak egitea.</li> </ul> |
| <b>Familentzat oharrak sinatu eta itzultzea</b>                                                               | <p>Gurasoek sinatu beharrekoak ezkutatzea edo apurtzea etxean ez erakusteko intentzioarekin.</p> <p>Sinadura faltsua erabiltzea.</p>                                                                                                                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hausnarketa orria eta konpromiso orria bete eta gurasoen sinadurarekin itzuli.</li> <li>- Konpromiso orria bete.</li> </ul>                                                                                                                                                             |



### 3- OSO LARRIAK:

| BIZIKIDETZA                                                                                | BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | NEURRI ZUZENTZAILEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Bizikidetza arauak errespetatzea</b>                                                    | Ikasturte berean 3 arau hauste larri egitea.<br><br>Delitua izan daiteken edozein ekintza burutzea.                                                                                                                                                                                                                                                                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hausnarketa orria eta konpromiso orria bete eta gurasoen sinadurarekin itzuli.</li> <li>- Lan hezigarriak edo eragindako kalte materiala konpontzeko zereginak egitea.</li> <li>- Konpromiso orrian betetakoa, hitzez kaltetuari adierazi.</li> <li>- Jokabide desagokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.</li> </ul>  |
| <b>Errespetuzko jarrerak izango ditugu guztiekiko, hezitzailekiko nahiz ikaskideekiko.</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jazarpen sexista</li> <li>- Hezkuntza komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa</li> <li>- Taldean liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo bertan parte hartzea, lesioak eragiteko arrisku larria eraginez.</li> <li>- Beste edonoren izena baimenik gabe erabiltzea. ONLINE suplantazioa.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hausnarketa orria eta konpromiso orria bete eta gurasoen sinadurarekin itzuli.</li> <li>- Lan hezigarriak edo eragindako kalte materiala konpontzeko zereginak egitea.</li> <li>- Konpromiso orrian betetakoa, hitzez kaltetuari adierazi.</li> <li>- Jokabide desagokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea..</li> </ul> |